


Kronika

2018ko urtarilaren 19a, larunbata



Txotx denboraldia 2019

Gehigarri berezia



**ORAINBERTAKOAK**

Garai da.
Lehen sektorea, baseritarren jarduera eta
hemengo produktuak sustatzeko garaia.

gipuzkoa.eus

Hernaniko txotx irekieran omenduak

«Etxekoak ditugu biak, sagardoa eta pelota»

Pelota mundua omendu zuten atzo, Hernaniko txotx irekieran, esku pelotako, palako eta erremonteko gonbidatuekin. Eta aurretik, modalitate bakoitzeko ordezkariak elkartu zituen Kronikak, Galarreta frontoian, pelotaz eta sagardoaz hitz egiteko: Garbiñe Tijero eta Amaia Irazustabarrena, Endika Barrenetxea, eta Rufino Rekalde.

Nola jaso zenuten omenaldiaren albistea?

Endika Barrenetxea: Niretzako oso pozgarria izan da, eta ohore bat, hernaniarra izanda, Hernaniko txotx irekieran parte hartzea. Sekulako gozada. Gainera, familia ere sagardoazalea izanda, oraindik eta gehiago. Pare bat aldiz egon naiz inaugurazio ofizialean, beti giro ederrean. Aurten guri deitzaieko poza ematen du, eta beste batzuekin konpartituta izateak, oraindik eta gehiago.

Garbiñe Tijero: Niri iruditu zait erreko-nozimendu orokor bat pelotari. Zenbat urte Hernanin pelotagatik sufritzen, eta gogoratu dira gutaz.

Rufino Rekalde: Eta gauzarik politena hori da, izan dela orokorra, modalitate guztiak batuz. Omenaldi txikiagoak edo haundiagoak izan ditugu tarteka, modalitate batean edo bestean; baina oso polita da guztiak batera omentzea. Egia esan, nik sorpresa hartu nuen, ez nuen espero. Eta ilusio handia egin zidan. **G.T.:** Honek bultzada bat ematen digu, azkenaldian eskasian gabiltza eta. Gaztetxoek ez dakit, ez ote duten kirol hauetak jakiten... Ea pixkanaka gehiago entzuten den eta erakartzen dituen.

Eskasia hori orokorra da guztietan, ezta? Nola ikusten duzue egoera?

E.B.: Nik uste dut, 2018an zuetaz, palakoez eta esku pelotakoez alegia, inoiz baino gehiago entzun dudala; beharbada, Pelota Mundialagatik. Eta jaso duzuen oihartzunagatik, akaso aukera erraza zen zuek omentzea aurtengo txotx irekieran. Eta erremontea ere omenaldian sartzea, guri ere oihartzuna emanez, oso poztekoa da. Asko hitz egin da pelotaz 2018an, eta izatekotan, aurten izan behar zen omenaldi hau.

R.R.: Seguruena bai, 2018ko arrakasta kontutan hartuko zuten, erabakitzekeo aurten pelota omentzea. Eta pentsatuko zuten, egitekotan orokorra egitea, Hernanin dauden modalitate guztiei.

Amaia Irazustabarrena: Egia da pelota aipatzean, eskuakoarekin erlaziozaten



Endika Barrenetxea erremontista, Garbiñe Tijero pala taldeko arduraduna, Amaia Irazustabarrena palista, eta Rufino Rekalde esku pelotako arduraduna, Galarreta frontoian.

dela. Baina erremontea eta pala ere kontutan hartu dituzte.

G.T.: Ez da aurreneko aldia izan, Hernaniko palistak Mundialera joan direna. Baina beharbada, 2018an oihartzun gehiago izan du, hedabideetan.

R.R.: Orain arte txapelarik ez da lortu, hori egia da. Bigarren geratu izan dira, baina Aitor Gorrotxategirena izan da aurreneko txapela, Mundial batean. Eta horregatik izango zuen oihartzun haundiagoa herrian. Baina esan zidatenez, hasieratik zeukaten garbi, omenaldi hau pelota munduari egingo zitzaioala. Aspaldidanik gabiltza denak lanean, eta orain, bakoitzak daukagu gure krisia, nolabait esateko.

G.T.: Hala da. Erremontean, esaterako, nik gogoan dut nola etortzen nintzen ostegunetan Galarretara, txistua jotzera, jaialdia zegoenean; Endikaren aitzak jokatzeko zuten orduan. Eta egoten zen Galarreta bete-betea, pasada bat izaten

zen. Ez dut ulertzen nola izan duen horrenbesteko beherkada.

R.R.: Zaila da gazteak mundu honetan sartzea...

G.T.: Telebista behar da. Telebistan ikusten dena da indarra daukana.

E.B.: Faktore asko daude. Gizartea ere guztiz aldatu da, gure ohiturak ere bai... Lehen, ostegun eta larunbatetan ez zen beste ezer egongo. Eta orain, daukazu futbola, eskubaloia, saskibaloia, karate, boxeoa, kick boxing... Asko aldatu da dena, eta guk ere, erremonteari dago-kionez, gauzak aldatu nahi ditugu datozen urteotan, jendea erraztasunak emateko Galarretara etortzeko. Herritarrei konplizitatea sortu nahi diegu erremonteari. Izan ere, ulertzen dugun bezala sagardoaren etxea direla Hernani eta Astigarraga, erremontearen etxea ere Hernani da. Azkeneko 40 urteetan jokatu diren txapelketa nagusi guztiak, Hernanin jokatu dira. Eta harrigarria

da, Galarretara egunerokoan etortzen direnen ia %80a nafarrak direla. Nafarroan badago ohitura oraindik, pelota jarraitu eta frontoira joatekoa; Gipuzkoan, ordea, ez.

R.R.: Hilda daude frontoia, esku pelotako profesionalen mundua kenduta. Afizionatu mailan, frontoia hutsik egoten dira, toki guztietan. Nik gogoan dut, nola erremonteari bultzada eman nahian, saiatu nintzen bideratzen eskuz hain ondo ez zebiltzan gazteak, erremontea probatzera.

E.B.: Orain ikusi dugu, Urnietako erremontista batzuek profesionaletan debuta egin dutenean, 20 gazte urrietar etorri zaizkigula probatzera.

Pelota munduko taldekide eta lagunekin ere joango zarete sagardotegira, ezta?

A.I.: Bai bai, joaten gara palakoak.

G.T.: Azkenekoa abenduan egin genuen,

Amaiak txapela irabazi zuelako aitzakian, hain justu.

E.B.: Guk ere ohitura handia daukagu. Binakakoa jokatu denean, urte guztian irekita dauden horietara joan gara partiduen ondoren, Alorrena, Petritegi edo Lizeagara. Eta orain, Oialume Zar irekitzen duten bezala, ostegunetan hemendik atera, eta askotan joaten gara, jokatu dugunak, bertan afaltzera.

R.R.: Guk ez daukagu ohitura hori; soziedean egiten ditugu bazkari eta afariak. Baina urtean behin kunplitzen dugu, Petritegi baita Berria Txapelketa-aren babesleeta bat, eta han egiten baitugu aurkezpena.

E.B.: Nik lotura handia ikusten diet bie, sagardoari eta pelotari. Herriko produktu bezala ikusten ditut, oso finkatuta daudenak. Sagardoaren etxea dela esaten den bezala, ezin duzu esan pelotaren etxea denik Hernani, Euskal Herri osoan jokatzeko baita. Baina etxeko produktu bezala ikusten ditut biak. Hernaniko Pelota Eskolak beti izan du indar handia, denak pasa gara hortik; eta sagardoak berdin. Azkeneko urteotan, sagardotegiak eraldaketa handia izan dute, gora etorri dira, eta modan jarri dira, sagardotegi jatetxe cool gisara. Orain, oso modan dago, oso pijoia izan eta horrelako toki rustikoetara joateak, bestela joango ez zinateketa. Baina sagardotegia denez, joan egiten dira.

R.R.: Eta guretzako ere aberasgarria da hori. Izan ere, lotura ekonomikoa ere badute sagardotegiek eta pelotak; ondo portatzen dira gurekin, eta dirulaguntzak ematen dizkiete pelotari. Hortaz, sagardotegiek indarra edukitzea, ona da guretzat ere.

E.B.: Asko inplikatzeko dira, bai. Guk ere, Sagardo Txapelketa daukagu, eta oso harrera ona izan dugu sagardotegi guztietan.

Asko aldatu da sagardotegien mundua, azkeneko hamarkadetan. Eta pelotarena? Nolako ibilbidea izan du, modalitate bakoitzak?

G.T.: Nik gogoan dut txikitzen, Tilosetan aritzen ginela neska eta mutil guztiak, eskuz. Gero, adin bat iritsi zen, ezin genuena palaz aritu, eta beste kirol bat aukeratu behar izan genuen; baina beti neukan hor, palaren harra. 1990 urtean, txapelketa bat antolatu zuten 18 urtetik beherakoentzat, baina Koro Barrene-teak erreklamazioa aurkeztu zuen, esanez 18 urtetik gora ere asko ginela. Horrela sortu zen, aurreneko Gipuzkoako Pala Txapelketa, nesketan, eta ordutik ez du hutsik egin. Orduan ikusi nuen,



Garbiñe Tijero, Amaia Irazustabarrena, Endika Barrenetxea eta Aitor Gorrotxategi.

atzetik ez bazen jendea etortzen, hasierako burrunba hori itzali egingo zela gero. Neska bilatu nituen, Tilosetan beti baitzegoen batenbat jokatzeko, eta kiroldegian entrenatzen hasi ginen larunbatetan; baina pailazoak zeudela edo beste zerbait zegoela, askotan ezin entrenatu geratzen ginen. Emakumea Pilotariren sorrerarekin, lortu zuten pala eskola kirolean sartzea, eta horrekin, orduak jarri zizkiguten hemen entrenatzeko. Hori laguntza handia izan zen guretzat. Eskola kirolek etorri dira ondorengo guztiak, Amaia bezala.

A.I.: Bai, nik gogoan daukadana hori da, Garbiñe aritzen zela guztioi bultzaka. Ni hasi nintzenean, neska pila bat ginen. Gero, bakoitzak bere bidea egiten du. Baina Garbiñeri esker, neska askok jarraitu dugu palan aritzen. **R.R.:** Hernaniko palaren historian, nabarmentzekoa da Javier Adarraga ere; Logroñoko frontoiari izena ematen diona, hain justu. Hernaniarra zen bera, eta Pariseko Joko Olimpikoetan hartu zuen parte, palaz; bera izan zen aurrenekoa. Gero Logroñora joan zen, eta ahaztuta daukagu pixka bat, hemen. Eskuaren historiari dagokionez, berriz, Hernanik izan zuen aurreneko gorakada, uste dut izan zela Luises Txapelketa, fraileek babestutakoa. Tilosetan jokatzeko, eta ikusi ditut argazkiak, jendea zuhaitzetara igota, partidua ikusteko; dena lepo beteta. Fama handia zeukan, afizionatu mailan. Hurrengo pausoa,

izan ziren Herriarteke Txapelketan lortutako emaitza onak. Aurreneko final historiko hura, Tolosan, Seguraren kontra galdu genuena; eta hortik aurrera jokaturako 10-12 finalak, ia denak jarraian. Hortik atera ziren aurreneko profesionalak ere: Iñaki Lujanbio, Iñaki Esnal, Josu Oiaga, Oier Mendizabal... Eta gero, azkeneko urte hauetan atera diren pelotari guztiak dauzkagu. Ezagunena beharbada Gorrotxategi, baina Ioritz Arrieta edota Paul Ojuel ere, izen handiko pelotariak dira afizionatu mailan.

E.B.: Erremontearen ibilbidea, hiru alderditan banatuko nuke nik. Batetik, harmailena. Nire aurreneko oroitza, nire garaian 25 bat ginen, eta duela sei urte edo, momentu batean 10 bakarrik zeuden. Eta orain, gazte berriak sartzen eta profesionaletan debutatzen joan garen bezala, ikusi dugu nola gure inguruan ere sortu dugun mugimendu pixka bat. Azkeneko sei hilabeteotan, 22 gazte hasi dira gurekin entrenatzen. Eta orain beste erroka da, emakume bat hastera erremontean, ez delako inoiz emakumerik izan. Guk dena emango diogu, eta neronek erakutsiko diot erremontean jokatzeko. Eta garbi daukagu, hemen ez dela bereiziko neska edo mutil; bakoitzak bere mailan, baina nahastuta ariko dira. Eta neska batek maila hartzen duenean profesionaletan jokatzeko, mutilekin batera ariko da. **G.T.:** Ea ezagutzen dugun hori, asko gustatuko litzaidake! ||

AKARREGI
sagardotegia

- Asteazkenetik larunbatera gaez. Asteburutan eguerditan ere bai
- Ostiral eguerditan irekita
- Autobus geltokia 20 metrotara

660 144 560
Akarregi auzoa
HERNANI

1,2,3,4... 365 zotz

urte guztian txotx

Petritegi

GURUTZETA
SAGARDO NATURALA
SIDRA NATURALA

Oialume bidea, 63
20115 Astigarraga
TEL. 943 55 22 42
www.gurutzeta.com

LIZEAGA
SAGARDOTEGIA

SAGARDO NATURALA

www.lizeaga.eu

euskal sagardoa

Herritarrak, txotx irekieran

Ez zuten aukera galdu, sagardo berria dastatzeko

Txotx egiteko aukera izan zuten atzo herritarrek, Hernanin; eta irekiera herrikoia ere egin zuten astigartarrek, asteazkenean.

OLATZ Arrieta astigartarrak eta Hernaniko Pelota Munduko ordezkariak hartu zuten protagonismoa, bi herrietako txotx irekieretan. Baina herritarrek ez ez zuten galdu nahi izan, txotx denboraldi berriaren aurreneko festa.

Hernanin, asko eta asko izan ziren, sagardo berria dastatzeko aukera galdu ez zutenak; eta omenduen ondoren, kupelara gerturatu ziren, ilara luzean.

Astigarragan, berriz, ekitaldi ofizialaren ordu berean, txotx irekiera herrikoia eman zioten hasiera, Murgia Jauregian. Sagardoa edan eta pintxoak jateko aukera izan zuten bertaratuek, eta baita irekiera ofiziala zuzenean jarraitzeko ere. Arratsaldean segi zuen festa bertan, Txan Magoaren ikuskizunarekin eta txokolatadarekin; eta trikitilareien erritmora, tabernetan borobildu zuten festa, Pintxotx eginez. ■



Tilosetako txotx irekieran jende ugari bildu zen eta aurtengo sagardo berria probatzeko aukera izan zuten.



Ilara osatu zuten Murgia Jauregian ere, sagardoa edateko.



Pintxoak ere izan ziren, Murgiako irekiera herrikoian.


LARRE-GAIN
TOLARE SAGARDOATEGIA
Asteartetik igande eguerdira irekita

AUTOBUS ZERBITZUA
Ostiralak: 20:30etan Biteritik / Larunbatak: 13:30etan eta 20:30etan Biteritik
☎ 943 55 58 46 - 616 28 78 67 **LARRE-GAIN BASERRIA - EREÑOTZU - HERNANI**

Sagardo naturala urte osoan botiletan salgai


RUFINO
SAGARDO NATURALA

Otsailaren 5ean
irekiko dugu txotx denboraldia

JAVIER ANSORENA Akarregi Baserría - Hernani **TEL. 943 55 27 39**

Harreman parekide eta askeen alde

TXOTX!

INDARKERIA SEXISTARIK GABEKO GUNEA (Emagin)

Informazioa, esku-orriak, pegatinak...

Otsaila eta martxoko larunbatetan: 18:00-22:00

Nafar kalean (komun publikoen parean)



ERASO SEXISTEN
AURREAN:

688 685 164

Otsaila eta martxoko asteburuak

092 (24h)

 **Hernaniko
Udala**

Astigarragako txotx irekiera - Olatz Arrieta Barandiaran

«Europar Batasuneko herrialdeetako buruek sagardotegian bilera bat egitea esperimendu interesgarria izango litzateke»

Kazetari astigartarra izan da aurtengo «gure sagardo berria» probatzen aurrenekoa. Bruselako berri ematen ohituago badago ere, sagardoa ez zaio batere arrotza, Olatz Arrieta Barandiarani.

URDURI eta oso emozionatuta ireki zuen Astigarragako txotx denboraldia Olatz Arrieta Barandiaran kazetariak, Gartziategin. Europa aldetik garrantzia haundiko berriak iristen ari diren honetan jai egunak hartu dituela onartu zuen, kasu honetan, sagardoaren berri emateko.

Sagar uzta eskasagoa izan da, baina, sagardoa, aurten ere, kalitate haundikoa omen! Informazioa kontrastatzea derrigorrezkoa dela eta, aukera izan duzu, behinik behin! Bai, eta oso goxoa dago, bide batez. Izan da ohore bat hemen egotea, eta lehenengo sagardoa dastatzea. Emozio askoko eguna izan da.

Egiari zor, ikuspuntu desberdinen berri ematea bada kazetariaren lana, baina presioak izaten dira... Gatzaiaga baserrikoa izateak arintzen al du sagardoaren enbaxadore lana? Baserrikoa izateak beste baserrietan bizi den egoera gertuagotik ezagutzen laguntzen du, ez da presioa, kontestua ezagututa egoera hobeto ulertzen da. Sagardoarena nere lehenengo enbaxadore lana da; esaten dute diplomazia arte bat dela, eta ondo egitea espero dut.

Azken urteetan berrikuntzaren biderei segika ari da sagardogintza; Jatorri Deitura, sagarrondoan eta sagardoa egiteko prozesuaren kontrola, dibertsifikazioa... Sagardoa 'ondoegi' ezagutzen duen gizarte batean, merkaturatzen laguntzen du? Bai, asko laguntzen du ezagutarazteak sagardoa ez dela zerbaite estatikoa, arlo batzuetan aldatzen ari dela gizartearekin batera.



Olatz Arrieta, sagardoaren enbaxadore bihurtuta, txotx irekierako prentsaurrekoan.

«Informaziorik ez badago, oso zaila da iritzia izatea; batak bestearen beharra izaten du»

Eta hemendik kanpo? Europan ere ez da falta sagardogilerik...

Sagarra toki askotan dago, baina Europa da munduan sagardo gehien kontsumitzen duen kontinentea. Ia herrialde guztietan egiten dute, Frantzia, Normandian, Britainia Handian, Alemanian, Belgikan. Baina edateko modua berezia da toki bakoitzean. Alemaniako toki batzuetan beste edari batzuekin nahastu dute, xinpertadun urarekin, esaterako, eta Irlandan izotza jartzen diote udan.

moldatzen ez direnek oso zaila izaten dute bizirautea, eta azkartasunaren inguruan bizi dugun obsesioak batzuetan albistearen kalitateari kalte egiten dio.

Kazetaritza ez dela desagertuko esan izan duzu, demokrazia jokoan dagoelako. Baina gero eta datu gutxiago, eta gero eta iritzia eta propaganda gehiago jasotzera ohituago gaude...

Joera hau gertatu izan da kazetaritzaren historiaren beste epe batzuetan. Joerak izaten dira, baina XX. mendearen hasieraz geroztik indarrean dagoen joerak, informazioa eta iritzia banatzeak, uste dut eutsi egingo diola oraindik. Informaziorik ez badago, oso zaila da iritzia izatea; batak bestearen beharra izaten du.

Urte berriekin muztioen irakinaldiak ekarriko duenaren esperoan gauden bezala, zer espero duzu izango dela pil-pilean Europar Batasuneko urteko agendan?

Aurtengo agendan zita oso garrantzitsua ditugu, batez ere Brexita eta Europako Parlamenturako hauteskundeak maiztzean. Brexita nola bukatuko den ez dago argi, baina gertatzen bada, Europar Batasuneko historian mugari izango da, lehenengo aldiz Batasuna handitu beharrean, txikitu egingo da. Europako Parlamenturako hauteskundeekin Batasuneko zuzendaritza karguak berriro dira eta datozen urteetako bidea markatuko da. Eskuin muturrak eta Europaren Batasunaren aurkako alderdiek duten indarra neurtzeko momentua izango da.

Txotx egitea bezain erraza den soluziorik balego...

Soluzioak askotan proposamen ausart eta imaginatiboei lortzen omen dira. Europar Batasuneko herrialdeetako buruek sagardotegian bilera bat egitea esperimendu interesgarria izango litzateke, bileren formaltasunetik kanpo jaten eta edaten, ondo pasatzen, auskalo! Beharbada, konponbideak errazago aurkitu daitezke. ||

Astigarragako txotx irekiera



Ohiturari jarraituz, sagarrondo bat landatu zuen Arrietak, Sagardoetxeako sagastian.



Ez zuen hutsik egin Sagar Dantzak, Gartziategiko atarian, txotx egin aurretik.

Dantzan jarri zituzten sagarrak, txotx irekieran

'Dantza' pelikulako irudiekin hasi zuten ekitaldia Sagardoetxean, filmeko zuzendariak bertan zirela; eta Sagar Dantzarekin egin zioten bidea gero, Gartziategin, aurreneko kupela ireki aurretik. Hortik aurrera, sagardoa izan zen protagonista.

SAGARDO berriak bezala, protagonismo berezia izan zuten txotx irekieran, dantzak eta sagarrak ere. Izan ere, *Dantza* pelikularen irudiekin hasi zuten ekitaldia Sagardoetxean, filmeko zuzendari eta egileak bertan zirela: Telmo Esnal, Koldobike Jauregi eta Juan Antonio

Urbeltz. Sagarra zanpatzen ageri ziren filmeko protagonistak; tartean, Joseba Astarbe astigartarra, sagardogile eta dantzaria. Berari aipamen berezia egin zion Zorione Etxezarraga alkateak, aurkezpenaren hasieran.

Baita Olatz Arrieta omenduari ere,

«herritar kuttuna». Eta gonbitea luzatu zuen, «sagardoaren kulturaz gozatzeko aukera paregabea aprobetxatzeko; baina ondo pasatze hori izan dadila errespetuz eta gizatasunez».

«Oso urduri» zegoela onartu zuen Arrietak, «ohore bat» izan zela azaldu

aurretik. Lasaia azaldu zen, sagarrondo berri landatzen, sagastian.

Handik Gartziategira mugitu ziren; eta aurreneko kupela ireki aurretik, sagarrak eta dantza protagonista, berriro: Sagar Dantza dantzatu zuten atarian, Astigar taldeko dantzariak. ||



Txotx denboraldiaren irekiera urtarrilaren 26an. Asteazkenetik igande eguerdira irekita.

BERTAKOAREN ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU !!

Bertako produktuekin bakarrik egiten dugu lan, gure Eusko Label behi txuleta bezala.

IPARRAGIRRE

ZURE 0 KM. SAGARDOTEGIA

Osinaga 10, HERNANI
943 550 328
www.iparragirre.com

IPINTZA SAGARDOTEGIAK IPINTZA 22 PLANA AURKEZTEN DIZU !

22

ZATOZ EZAGUTZERA !

ASTIGARRAGA erdian
Santio Zeharra, 12 ASTIGARRAGA TEL 688 81 17 24 www.ipintza.com

Txasenekoa Borda – Angel Alvarez eta Nakena Galartza

«Harro nago sektorearentzako bidea zabaltzen gure tanta jarri genuelako»

Hogei urtetik gora dira Angel Alvarez eta Nekane Galartza Hernanitik Beruetera joan eta Txasenekoa Bordan sagardotegia jarri zutela. «Nahi gabe» hasi omen ziren, eta konturatzerako, inguruan lau sagardotegi badira.

«SENZILLOA» izan omen zen Hernanitik Beruetera (Basaburua bailara) mugitzea. Nekane Galartzaren osaba baten base-ria herentzian jaso, eta Angel Alvarez eta biek, senar-emazte, «kargu egitea erabaki» zuten. «Ideia zen etxerako sagardo pixka bat egitea. Sagasti txiki bat jarri, kupela bat, eta etxerako egin». Hasi, horrela egin omen zuten, eta hazi, «kasualitate...».

Hernani eta Astigarratik kanpo ere, badirela sagardotegiak! Etxerako sagardoa egiten hasita, nolatan jarri zenuten zuena, Berueten?

Laguna dut Zabaloeako Manuel Iradi, eta hark esandako sagar barietateen bila joan nintzen Normandiara. Nekazal etxe batera joan nahi nuen, eta galdetu eta Calvadosera bidali ninduten. Handik barietateak ekarri eta Iradirekin partitu eta jarri nituen. Eta handik etorrira, hemen, bailaran Normandiara beste bidaia bat egiteko aukera sortu zen. Behi eta ardiak ikustea zen asmoa, eta nik esan nuen joango nintzela sagastiak ikusteko aukera banuen, barietateren bat falta bainuen. Gero, bueltakoan, Aldundiak jakin nahi izan zuen bidaiaren berri, eta inork hitz egin nahi ez zuela eta, nik hitz egin nuen, baina sagar eta sagardoa! Egunkarietan ateratu zen, eta jendea Beruetera etortzen hasi zen, sagardotegiaz galdezka. Baina Hernanin bizi ginen oraindik! Eta horrela, Hernanin genuen jatetxetik

butanozko su txikia hartu, txuletarako parrilla, arrautzak... Eta hantxe joan ginen! Hiru astetan sagardorik gabe geratu ginen, eta hurrengo urterako gehiago egin beharko genuela pentsatu genuen. Horrela, nahi gabe hasi ginen!

Nahi gabe hasi, eta ikaragarri hazi! Zein sagar barietate erabiltzen dituzue egun?

40 barietate diferente dauzkagu: normandiarrak, asturiarrak, gipuzkoarrak, bizkaitarren bat ere bai, eta hemengoak, errekuperatu duguna. Ia 5 hektarea sagasti dauzkagu. Sagar dezente da. Etxekoarekin egiten dugu dena; gutxi dagoenean, gutxi!

Nolakoa izan da aurtengo uzta?

Nola dator sagardoa? Lehengo urtean terriblea izan zen, eta aurten, kaxkarra! Han bezala. Sagardoa, berriz, ez dakit oraindik! Ontzi-aldaketak egin berriak ditut eta probatzen jakingo dut. Hau toki altua da, 800 metroan gaude, eta sagardoa atzerago, lasaia



Angel Alvarez asturiar-hernaniarrak darama Txasenekoa Bordako martxa, Berueten.

Argazkia: ETB2ko 'Juego de cartas' saioa.

«Hiru astetan sagardorik gabe geratu eta hurrengo urterako gehiago beharko genuela pentsatu genuen»

etortzen dira. Hona etortzean han bezala egiten genuen sagardoa; adibidez, gauetan freskura bila ireki egiten genituen kupelak. Baina irakiteko behar ditut 10-12 gradu, eta hemen hotza egiten du! 4, 5, 7 gradutan egiten genuen! Orain ikasi dugu, kolpeka!

Ederki ikasi ere! ETB2ko 'Juego de cartas' saioan irabazte atera zarete...

Hasieratik argi izan genuen natural izango ginela. Inaxio, hernaniarra bera ere, ateratzeko zenez, hitz egin genuen eta ginen bezala aterako ginela aipatu genuen. Programa saiatzan da zirikatzan, baina ez ginen erori, eta esan ziguten programa diferentea izan zela gurea, ez ginelako bata bestea izorratzen

ibilili. Denak irabazten atera ginen, hori genuen helburua.

Inguru horietan jendeak ezagutzen dituzue sagardotegiak? Hemengoetatik diferenteak dira?

Inaxio arraina partitzen ibiltzen zen, eta esan nion hari ere, ez ote zen animatuko sagardotegi bat irekitzera, giro pixka bat jartzeko. Orain bagara lau sagardotegi inguruan. Jendeak orain ezagutzen ditut! Eta asko bidaltzen ditut oraindik Hernani eta Astigarragara; hango lagun askorekin mantentzen dut harremana! Hona etorri ginenean, Aldundira joan ginen laguntzatz eskatzera, eta sagardotegia zer zen ere ez zekiten ial! Ostatu edo bentetan ere ez zen sagardorik izaten. Neronek eramanen nituen Hernanitik ekarritako kaxak! Orain etxe guztietan partitzen dute, normal. Harro nago, sektorearentzako bidea zabaltzen gure tanta jarri genuelako. Gaurko egunean sagardoa normala da hemen ere. Neroni harrituta nago urte gutxitan zein arrakasta izan duen ikusita, hemen hasi eta Erriberaraino! ||



ALBERRO SAGARDOTEGIA

943 55 00 19

Martitxonea sagardotegia – Inaxio Begiristain Iriarte

«Urtero joaten gara nafar koadrila Hernani aldera, sagardotegietako sarea zabaltzeko»

Arrain saltzaile izatetik sagardoa egitera pasa zen Inaxio Begiristain. Hernanin jaio zen, eta gertutik ezagutzen zituen sagardotegiak, baina bezero bezala. Nafarroa aldean lagun hernaniarrekin egin zuen topo, ordea, eta «kultura hori eramatea» erabaki zuten.

HERNANIN jaio bazen ere, Aldatzekoa du familia Inaxio Begiristain Iriartek, eta autobia egin zutenean, bailara hartara aldatu zen, «ia Hernaniko auzo bat bihurtu» omen dela eta! Txasenekoa Bordako Angel ezagutzen zuen. «Hernanitik ezagutzen genuen elkar, sagardotegietan ere bezero bezala ibilita». Eta horrela, hura sagardoa egiten hasi zela-eta, animatu egin zen Inaxio ere.

Konturatzerako, sagardotegien gunea sortu duzue Nafarroa alde horretan ere!

Sortu da txoko bat, bai. Berueten bada beste bat Angelenaz gain, eta Lesakan, Lekarotzen, gurea Aldatzen... Eta Lekunberrin. Hura dugu gure hiriburu.

Baina Hernanitik Aldatzera joandakoa zara zu. Nolatan?

Hernanin jaio nintzen, baina gurasoak, bai ama eta baita aita ere, Aldatzekoak nituen. Ezkondu berritan joan ziren Hernanira. Baina udararo, belar garaietan, beti etortzen ginen Aldatzera aitona-amonak laguntzera. Eta bestalde, nik 13 urte pasa ditut bailara honetan arraina saltzen! Autobia egitekoak zirenean jarri nuen sagardotegia, eta pixkanaka, pasa dira ia 25 urte!

Txasenekoa Bordako Angelekin egin omen zenuen bat...

Orain 25 urte baino gehixeago, sagastia



Inaxio Begiristain hernaniarrak jarri zuen martxan Martitxonea Aldatzen, gurasoen jaioterrian.

Argazkia: ETB2ko 'Juego de cartas' saioa.

jarri eta sagardoa egiten hasi zen Angel. Uste dut 1.000 litro inguru egin zituela aurreneko aldirian. Eta orduan hasi ginen pentsatzen: 'zergatik ez dugu ekartzen gure kultura hori hona?'. Hernanitik ezagutzen genuen elkar, sagardotegietan ere bezero bezala ibilita. Eta Angelek esan zidan: 'ni hasia naiz horretan!'. Eta ni ere animatu nintzen.

Zu ere sagastiarekin hasi zinen?

Hasieran, kupela jarri, eta Hernanitik ekartzen nuen muztioa kamioian, Otsua-eneatik, Ximonen sagardotegitik, eta hemen irakiten zuten. Eta hirugarren urterako dolarea jarri eta sagasti hektarea bat jarri nuen. Horrez gain, Aldatzen beste hiruzpalau baserrietatik ere ekartzen dut sagarra.

Nolakoa izan duzue aurtengo uzta?

Nola dator sagardoa? Aurtengo uzta eskasa izan da. Kanpotik, Gipuzkoatik eta Normandiatik ekarri behar izan dut sagarra. Sagastiek urte bat ona izaten dute, eta hurrengoak, atsedenekoa izaten da. Sagardoa, berriz,

bi motakoa egiten dut batez ere. Bat sagar frantsesarekin, eta bestea, Gipuzkoa eta Nafarroako sagarrekina. Biak nahastuta egindakoa ere badaukat, eta uste dut hobetu egiten dela. Batzuek lasto kolorea dute gehiago, horixka, sagar frantsesekin egindakoak. Beste batzuk argiagoak dira, berdexegoak, sagar gipuzkoar eta nafarrekin egindakoak. Baina denak daude dagoeneko, edateko modukoak!

Eta jaioterriko sagardoa, nolakoak ote datoz? Egiten duzue bisitarik?

Noski! Urtero bi edo hiru aldiz bueltatxo egiten dugu sagardotegietara. Urtero joaten gara nafar koadrila Hernani aldera, sagardotegietako sarea zabaltzeko. Nafarrei erakusteko nolakoak diren hangoak.

Asko aldatzen dira?

Nik nire formatua daukat lan egiteko. Txotxean dastatu eta era berean, erakusten dut elaborazio gela, fermentazio gela, parrilla... 'Txotx!' ohiu egin eta etortzen dira denak atzetik. Zuzeneko

tratu ematen dugu, gure sagardotegia txikia baita, 80 bat laguntzako dago tokia. Gertuko formatua da gurea eta produktua ere asko zaintzen dugu.

'Juego de cartas' saioan nabaritu zen hori, giro ona.

Angel eta biok elkar ezagutzen dugunez, lehenago hitz egin genuen ez ginela borrokan arituko. Sentsazio onarekin geratu gara programan.

Kupelei izen bereziak jarri dizkiezula ikusi genuen bertan... Goizueta ere baduzu!

Bailarako izenak jarri nizkien: Araitz, Larraun, Basaburua... Omenaldi bat da, arrain saltzaile inguruetan ibili nintzela. Garrantzitsua iruditzen zait hemengo produktua ezagutzera ematea, eta gertutasunak laguntzen du. Eta Goizueta bakarrik ez; badaukat bi buko, bat Goizueta eta bestea Hernani! Beti izan dut harreman handia Goizueta-ekin ere, eta goizuetar bat ibiltzen da hemen laguntzen. Denak dauka harremana. ||

GARTZITEGI
SAGARDOA

ASTIGARRAGA
943 46 96 74
www.gartzitegi.com

SAGARDO NATURALA

SAGARDOTEGIA ALBERRO

ALBERRO SAGARDOTEGIA

943 55 00 19

Santa Barbara auzoa, 61, hernani

Itxas-Buru
Sagardotegia

Bertako sagarra

Asteazkenetik igande eguerdira irekita

Osñiaga Auzoa
20120 HERNANI
TEL. 943 556 879
www.itxasburusagardotegia.com

Ostirala 25
Txotx denboraldiari hasiera emango diogu

Ostegunetik igandera irekita
Asteburu eguerditan zabalik
Apirila bukaera arte

GOIKO LASTOLA
Baserriko Sagardoa

943 55 32 72 - 620 78 35 29

Ereñotzu auzoa - Hernani

‘Sagardogile’ liburua

«Sagardogile beterano hauek eman zioten buelta, galtzen ari zen sagardo munduari»

Asko dago idatzita sagarrari eta sagardoari buruz; ez, ordea, sagardogileen inguruan. Eta haiei eman diete protagonismoa, Joseba Urretabizkaiak eta Joxemi Saizarrek, ‘Sagardogile’ liburuan. 65 urtetik gorako 19 sagardogileren bizimodua eta ikuspegia jaso dute: «urte gutxitan aldaketa handia bizitu dute, eta pasa dira baserritar xumeak izatetik, ostalari eta enpresari izatera, komertzializatzerara...», diote.

«IXTEN ari ziren sagardotegiak, 1960ko hamarkadan, asko ari ziren gutxitzen. Eta hauek, gure sagardogile beteranoenak, izan ziren buelta eman ziotenak», dio Joxemi Saizarrek. 65 urtetik gorako 19 sagardogile elkarrizketatu ditu berak, argazkitan erretratatu ditu Joseba Urretabizkaiak, eta liburua osatu dute, sagardogileei buruz, haien lana balioan jarri eta azalertzeko asmoz.

«Asko idatzi da sagarra eta sagardoaren inguruan, eta aldiz, ezer gutxi sagardogileei buruz. Horregatik, sagardogile beteranoenak hartu ditugu, eta beraien testigantzak, bizimodua eta ikuspegia jaso nahi izan dugu», azaldu du Urretabizkaiak. Horrela jaino zen *Sagardogile* liburua.

«Jaso nahi genuen beraien trasmisioa nola izan den; beraien nola ezagutu zuten sagardogintzaren mundua, eta gaur egunera arte nola bideratu duten», dio Saizarrek.

«Nahiko erraza izan da liburua aurrera eramatea, eta oso polita; eskuzabal hartu gaituzte»

Bat datoz Urretabizkaiak eta Saizar, lana nolakoa izan den definitzeko garaian: «topaketa atseginak izan dira. Beraien etxeko atea zabaltu, eta eskuzabal hartu gaituzte. Tragotxoren batera ere gonbidatu gaituzte...», dio Saizarrek. «Nahiko erraza izan da liburua aurrera eramatea, eta oso polita», nabarmendu du Urretabizkaiak.

Eta argazki saioretarako, «modelo onak» izan direla ere kontatu du berak: «ez daude ohituta argazkietara, baina ikusten dutenean zer egiteko asmoa daukazu, eskertzen dute beraien lana eta bizimodua azalertzeko nahi izatea».

Hamar bat orrialde eskaini dizkiote sagardogile bakoitzari, liburuan: «erretratatu batekin hasten dira guztiak, erre-



tratuzalea bainaiz. Pertsona bera da protagonista, berak kontatuko digu dena», azaldu du Urretabizkaiak. Eta hortik aurrera, sagardotegietako txokoetan, xirian... erretratatu ditu sagardogileak; baita iloba eta seme-alabekin ere, «etorkizuneko ikuspegia ere garrantzitsua delako». Sagastien edota sagarrondoaren loreen argazkiak ere jaso ditu liburuan. Liburuko argazkiak dira, bi orrialde hauetan ageri diren laiak.

«Salto handia eman du sagardo munduak, 40-50 urtetan»

Saizarrek, bere aldetik, nabarmendu du «salto handia» eman duela sagardogintzaren munduak: «duela 40-50





 943 55 72 96 / 645 729 571

www.artolasagardotegia.com

 Artola baserria - Santiago Mendi

 20115 ASTIGARRAGA



OYARBIDE

 SAGARDOAK

 Astelehenerik larunbatera afariak

 eta larunbata eta igandetan

 bazkariak. Igande gauak itxita.

 Oiarbide Baserria - ASTIGARRAGA

 TLF.- 943 55 31 99

urte nola zegoen, eta nola dagoen gaur egun, ez daukate zerikusirik. Asko zabaldu da, askoz ere sagardotegi gehiago daude, eta produkzioa ere nabarmen handitu da. Modernizatu egin da, kalitatea hobetu da... Aurrerapen handia ezagutu du. Produktu ezaguna da orain, atzerrira ere zabaltu da. Eta hori horrela izateko, lan handia egin zuten sagardogile hauek».


Sagardoaren ekoizpenaren atzean dagoena azalertzeko nahi izan dute liburuan. Eta zer dago atzean? «Gehiengan baserritar familiak dira», argitu du Saizarrek: «baserriarekin oso lotuta dago sagardotegia, eta familiako lana izaten da normalean, beraien aurreko belaunaldietatik jaso dutena. Izan ere, askok mendetan zehar egin dute sagardoa, etxerako; batzuek erabaki zuten arte, saltoa eman, zabaldu eta produkzioa handitzea».

«Lanbide asko ezagutu behar izan dituzte, baserritar xumeak zirenek»

Salto harekin, «aldaketa handia» bizitu zuten baserritar familia haiek ere, urte gutxitan: «pasa dira baserritar izatetik, ostalari eta enpresari izatera, komertzializatzerara, kalitate aldetik ere ezagutza batzuk jasotzera... Lanbide asko ezagutu behar izan dituzte, baserritar xumeak ziren haiek», kontatu du Saizarrek. Eta azaldu du, «nahiko gertukoa» dela sagardogintzaren mundua, baina jaso dituztela zenbait detaile ezagun, liburuan: «menu tradizional itxi bat egiteko ideia, Andaluziatik ekarri zutela kontatu digute; garai batean edozein botila erabiltzen zela, txotx egitearena nondik datorren...».

Xibarit argitaletxeak kaleratu du liburua, eta bi tokitan eskuratu daiteke: Astigarragako Sagardoetxean; eta Donostian, Hontza liburudendan.

Hauek dira, 19 sagardogileak: Juan Jose Aburuza (Aburuza); Juan Goikoe-txea Altzueta (Altzueta); Jose Gregorio Begiristain (Begiristain); Jose Miguel Bereziartua (Bereziartua); Jose Cruz Calonge (Calonge); Rufino Cipitria (Eguzkitza); Juan Bautista Goikoe-txea (Elor-rabi); Felix Garmendia (Etxe zuri); Isidro Iguaran (Eula); Jose Goñi Urreaga (Gurutza); Juan Ignacio Astiazaran (Iruin-Astiazaran); Jose Mari Lasa (Isas-tegi); Asentxio Intxauspe (Itxas-buru); Sebastian Zabalegi (Oiarbide); Jose Antonio Iparragirre (Otatza); Joaquin Otaño (Petritegi); Rosario Arruti (Txindurri iturri); Miguel Zapiain (Zapiain); eta Jose Antonio Gincerain (Zelaia). ||





 943 55 72 96 / 645 729 571

www.artolasagardotegia.com

 Artola baserria - Santiago Mendi

 20115 ASTIGARRAGA



OYARBIDE

 SAGARDOAK

 Astelehenerik larunbatera afariak

 eta larunbata eta igandetan

 bazkariak. Igande gauak itxita.

 Oiarbide Baserria - ASTIGARRAGA

 TLF.- 943 55 31 99



ELORRABI

 Sagardotegia

 Tolare Sagardotegia

 Osinaga auzoa

 ELORRABI baserria - HERNANI

 943 33 69 90

 630 42 96 74



altzueta

 HERNANI

 Urtarrilaren 26an irekiko dugu Txotx denboraldia

altzuetasagardotegia.com

 Osinaga, 7. Hernani

 943 55 15 02

Hegaziak, erleak, zomorroak...

Sagastien zaindari txikiak

Zenbat eta fauna anitzagoa sagastian, orduan eta aukera gehiago izango da uzta hobia izateko, izurriteak gutxituko direlako eta polinizazioa handitu. Bestalde, sagastiaren itxurak eta inguruzten duen paisaiaren egiturak erlazio zuzena du bertan egongo den fauna aberastasunarekin. Bioaniztasunak, hortaz, sagastiari mesede egingo dio; eta sagastiak berak gure lurraldearen bioaniztasunari lagun diezaioke.



IÑAKI SANZ-AZKUE
Argiaren Sagarrondotik
aldizkarian argitaratua

SAGASTIETAKO bioaniztasunaz azterlan oso gutxi egin da Euskal Herrian. Nazioartean, ordea, hainbat herrialde landu dute gai hori. Ez da gutxiagorako; polinizazioak eta izurriteen kontrako neurriek berebiziko garrantzia dute sagarrondoak emango duen uzta, eta sagastiaren eta inguruaren bioaniztasunak eragin zuzena eduki dezake bi faktore horien artean.

Hala erakutsi dute Oviedo Unibertsitateak eta Serida zerbitzuak Asturiasen egindako azterlanek. Daniel García eta Marcos Miñarro biologoek zuzendutako lan-taldeek Asturias erdialdean egin dituzte ikerketak, 800 km karratutan banatzen diren 25 sagastitan; Euskal Herriko kanpo eginak izanik ere, arretaz begiratu beharko genituzke datu eta ondorioak, hein handi batean gurean ere zentzua izango dutelako.

Ekosistemaren zerbitzuez mintzo dira ikertzaileak euren azterketetan, hau da, gure inguruko faunak eta florak gizakiaren mesederako bete ditzaketen funtzioez, polinizazioa eta izurriteen kontrako neurriak ardatz hartuta.

Txoriek eta intsektuek eduki al dezakete eraginik sagastiko polinizazioan eta izurriteen kontrolean eta, hortaz,

Berebiziko garrantzia dute sagarrondoan uzta, polinizazioak eta izurriteen kontrako neurriak; eta horien artean, eragin zuzena eduki dezake sagastiaren eta inguruaren bioaniztasunak.

sagastiaren ekoizpenean? Zein hegazi eta zomorro edukitzea komeni zaigu? Eta horiek erakartzeko, zer egin beharko genuke?

Intsektuak eta polinizazioa sagastietan

Asturiasen egindako ikerketen arabera, sagastietako lore askok ez dute aurrera jotzen, ez dira ernaltzen, polen nahikorik ez dutelako jaso. Polen gehiago jasotzeko, beraz, ernaltzeko aukera handitu eta, ondorioz, sagar uzta hobia izatea ahalbidetuko luke. Ez da zerbaite berria; sagarrondoek intsektuek ematen dituzten polinizazio zerbitzua behar dute, ezinbestean, eta horretarako, nekazari askok erlauntzak jarri izan ditu urtetan bere sagasti inguruan. Erle arrunta (*Apis mellifera*) polinizatzaile ona baita.

Polinizazioa, ordea, ez da soilik erle arruntaren lana. Serida zerbitzuko Rodrigo Martínez Sastrearekin batera egindako azterketa baten bidez, sagastietan dauden intsektu polinizatzaileak hobeto ezagutu nahi izan dituzte, eta prozesu horretan parte hartzen duten espezieak ezagutu. Ondorioen arabera, polinizazioa egiten duen intsektu dibertsitate handia dago sagastietan.

Orotara 101 ezberdin. Erle arruntak talde horren %61 osatzen du, baina badira ere sirfidoak (%21), erle basatiak (%7),



Amilotox urdina, ahoan zomorroa duela. Argazkia: Marcos Miñano

eulien taldeko dipteroak (%6), erlastarrak (*Bombus* generoa) (%3), edota kakalardo, tximeleta eta beste intsektu batzuk ere (%2).

Beraz, polinizazioa ezin da erleeta

soilik mugatu; aitzitik, ahalik eta polinizatzaile dibertsitate altuena erakartzeko da gomendagarriena. Garai batean sagarrondoaren inguruan erlauntzak jarritzen ziren moduan, Asturiasen ere egin

dute erle espezie ezberdinak sagarrondo inguruetara erakartzeko ahalgina. *Osmia* generoko erlearentzako, esaterako, zulo txiki ugari osaturiko egurrezko etxeak jarri dituzte sagastietan. Zenbat eta polinizatzaile gehiago, orduan eta uzta hobia edukitzeko aukera handiagoa izango baita.

Hegaziak eta izurriteen kontrola

Sagastietan eta inguruetan bizi diren animaliek, polinizatzaile ez ezik, izurriteen kontra egiteko ere balio dute. Izurriteen kontrol biologikoa ikertzeko garaian, hegaziengan jarri dute arreta ikertzaileek. Txoriek erakartzea neurri ona izan al daiteke sagastietako izurriteen kontra egiteko? Zein txori mota egotea komeni da?

Horiek guztiak ikertzeko, García eta Miñaroren taldeek metodologia berezia erabili dute: izurriteak eragiten dituzten intsektuen neurketak egin dituzte egoera ezberdinetan. Aurretik aipaturiko 25 sagastietako sagarrondo batzuetan, adar jakin batzuk kaiola itxurako sare gogorrez itxi dira. Kaiola horiek intsektuak adarretara sartzea baimentzen badute ere, ez diete hegaztiak sartzen uzten, eta honela, txoriek sar daitezkeen eta sar ezin daitezkeen adarren arteko konparaketak egin dituzte. Hegaztiak sartu ezin den adarretan, izurriteak sor ditzaketen intsektuen kopurua nabarmenki altuagoa da txoriek sar daitezkeen adarretan baino.

Hegaziak ez ezik, intsektuek ere paper garrantzitsua joko dezakete izurriteen kontra. Sagarrondoetako lore-gurgurioak (*Anthonomus pomorum*), esaterako, izurriteak sor ditzake sagastietan. Bada, horien etsai dira hainbat hegazi eta artropodo, Asturiasen egindako ikerketek ondorioztatu dutenez. Txoriek, esaterako, loraketa aurretik sagastian dauden lore-gurgurioen %31 desagerrarazten dute, eta loraketa ostein, %44. Honek eragina du urte horretako uzta bertan, edota hurrengo urtekoan (lore-gurgurio kantitatea txikitu dutelako).

Lore-gurgurioen etsai nagusiak dira kaskabeltz handiak (*Parus major*), amilotox urdinak (*Cyanistes caeruleus*), txinbo kaskabeltzak (*Sylvia atricapilla*) eta txioak (*Phylloscopus* generoa). Zomorroen artean, inurriak, armiarnak eta ipurtsardeak.

Kantitatea ez da nahikoa, dibertsitatea behar da

Izurriteen kontra egin eta polinizazioa hobetzeko, ahalik eta intsektu eta



Asturiarrek egindako esperimenduak erakutsi du, hegazi intsektuak nabarmen murrizten dutela sagarrondoak kaltetzen duen animalia kopurua. Argazkiak: Oviedo Unibertsitatea eta Serida.

Izurriteen kontra egin eta polinizazioa hobetzeko, ahalik eta intsektu eta hegazi kopururik handiena erakarri behar da, baina kantitatea ez da nahikoa. Dibertsitatea behar da; ahalik eta espezie gehien, kantitate handiengan erakartzea.

hegazi kopururik handiena erakarri behar da, baina kantitatea ez da nahikoa. Dibertsitatea behar da, hau da, ahalik eta espezie gehien, ahalik eta kantitate handiengan erakartzea sagastietara. Zergatik? Dibertsitate funtzionalagatik.

«Dibertsitate funtzionalak» adierazten duena da, espezie bakoitzak hainbat forma, tamaina, ohitura eta bizileku izan ditzakeela. Eta, beraz, espezie bakoitzak funtzio ezberdina bete dezake sagastian: batzuk sagarrondoaren beheko aldean ibiliko dira, besteak adar txikietan, besteak enborrean... Udaberriean batzuk, besteak udan, edota udazkenean. Goizez batzuk, eta besteak eguerdian edota gau aldera... Alegia, zenbat eta espezie gehiago izan, orduan eta aukera gehiago izango da sagastiaren eta sagarrondoaren hainbat gunetan dauden loreak polinizatzeko, eta garaian-garaian dauden izurriteei aurre egiteko.

dutenez, polinizazioa errazten dute.

Erlastarrek sagastiaren goiko alde-rako joera dute, egunaren amaieran eta minutuko 16,7 bisitaldi egiten dituzte. Erle arruntak bisitaldi erdia egiten du minutuko (8,7) eta sagarrondoaren edozein tokitan aurki daitezke, batez ere goizez. Goizez ibiltzen dira baita ere sirfidoak (4,7 bisita minutuko) eta euliak. Sirfidoek arbolaren beheko partea dute gogoko, erle basatiek bezala (4,8 bisita minutuko). Azken hauek, kakalardoekin batera, eguerdian egiten diote bisita sagastiari. Ondorioa garbia da, beraz. Gero eta polinizatzaile dibertsitate handiagoa, orduan eta polinizatzaile aukera handiagoa.

Hegaztiak, ondorio bera

Sagastiek duten txori aniztasuna ikusi nahian, bi urtez 10.000 behaketa egin dituzte ikertzaileek, eta guztira 63 espezie kontatu. Horietatik 23, arbolekoak eta intsektuak. Behaketa gehienak (%70) sei hegazti osatu dituzte, ordea, txantxangorriak (*Erythacus rubecula*), zozoak (*Turdus merula*), txinbo kaskabeltzak (*Sylvia atricapilla*), txepetxak (*Troglodytes troglodytes*), kaskabeltz handiak eta amilotox urdinak. Hegazi dibertsitate altua izan dezaketen sagastiek, intsektuek bezala, dibertsitate

KALITATE GUZTI-GUZTIA daukagu zuretzat

Zelaia
Sidra natural

MARTINDEGI 29
20120 HERNANI | GIPUZKOA
943 555 851
zelaia@zelaia.es | www.zelaia.es

KALITATE ZAPIAIN BERMEA

zapiain.eus

olaiizola Sagardotegia

Otsailaren 1ean irekiko dugu
aurtengo txotx denboraldia

Asteazkenetik larunbatera gauetz
Asteburu eguerdian irekita
Aste egunetan enkarguz

Osinaga auzoa, 38. Hernani Tel. 943 33 67 31 / 690 698 484

funtzional handia izan dezakete txori intsektujale eta zuhaitzarren artean. Tamaina txiki eta moko fineko hegaztien dauden landare-zorrien kontra egiten dute, eta enborretan gora eta behera ibiltzen diren okilek (*Picus* eta *Dendrocopos* generoak), gerri-txoriek (*Certhya* generoa) eta garrapoek (*Sitta europaea*) enborreko zirrikitueta karpokapsaren harrak (sagarrondoan kaltea sor dezakeena) jan ditzakete. Kaskabeltzek, amilotzek eta txinboek lore-gurgurioei egingo diete aurre adar sendoetan, eta zozo eta txantxangorriek arbolaren oinean dauden karpokapsa eta lore-gurgurio helduei.

Txori dibertsitate handiagoko izurritei aurre egiteko aukerak areagotzen dituzte, txorien habi-kutxak jartzen ere hasi dira sagasti askotan, sagarrondo zaharren hutsuneak hegazti espezie batzuek umatzeko lekuen falta izatea ere ekarri baitu.

Zer egin sagastietako bioiztasuna handitzeko?

Hegaztiak eta intsektuak erakartzeko, García eta Miñarrok gomendio batzuk ematen dituzte.

-Sagastien kokapena: Gune natural edo basatiz inguratuak dauden sagastiak aberatsagoak izango dira espezie aldetik.

-Sagastia bera: Sagastiaren sabaia oso itxia denean, alegia, adar askorekin estalia dagoenean, hegazti dibertsitate altuagoa izango da.

-Inguru: Aniztasun handiagoa izango da sagastiaren inguruan hesi-biziki daudenean. Hau da, lur-eremuak berezko landareak erabiltzen direnean.

Orokorrean, sagastiaren eta inguruko paisaiaren bioiztasuna handitze hartzten diren neurri guztiek, sagastiko fauna dibertsitatea handituko dute eta, beraz, izurriteen kontrako neurri biologikoa eta polinizazioa arrakastatsagoak izango dira. Autoreen arabera, sagastiaren mantenu tradizionala egokiagoa da: pestizida eta herbizida gutxi, eta hainbat lore basatiz osaturiko zelaiak dituzten guneak kontserbatzea da lehentasuna. Sagastiak osatzen duen paisaiaren eta inguruen kudeaketa on bat, eta mantenu tradizionalan oinarrituriko sistemak askoz egokiagoak izango dira, beraz.

Sagastiek, lurraldearen bioiztasunari mesede

Bioiztasunak sagastiei mesede egiten dien modu berean, sagarrondoak



dauden eremuaren eta ingurunearen kudeaketa egokia, bertako ekoizpenarentzat ez ezik, lurraldearen bioiztasunarentzat ere onuragarria izan daiteke. Azken urteetan baserrien eta inguruko lurren erabileraren galtzeak landa-eremuaren desagertzea eragin du. Gune horiek sortzen dituzten habit

mosaikoak, aldiz, oso gune aberatsak izan daitezke.

Egun ditugun sagastien eta inguruen dauden eremuen diseinu eta kudeaketa egokiak, sagar uztan ez ezik, kokatuta dauden lurraldearen bioiztasunean ere onurak sor ditzake. Bertako sagarrak eta produktu ekologikoen

indarra hartu duten garaian, hurrengo pausoa sagasti bioiztasun sortzea litzateke. Modu koordinatuan, kudeaketa jakinez eta ekintza txikien laguntzaz, sagardogileentzat ez ezik, gizarte osoarentzat ere onuragarriak izan daitezkeen pausok ematea izango da etorkizuneko lana. ||

Oialume Zar
sagardotegia
www.oialumezar.com
tel. 943 55 29 38

OTSUA-ENEA
SAGARDOTEGIA
Astearretik igande eguerdira irekita
Osiñaga auzoa, Hernani
Tel. 943 55 68 94

Aurtengo sagardoa



Sagardo «konpletoa» aurtan, kupeletan

Kolorez, «lastoaren» itxuradunak, eta ahoan, «gorpuzdunak» dira 2018ko sagar uztatik egindako sagar-zukuak.

BEHIN eta berriz errepikatu dute sagar-ekoizle eta sagardogileek aldikotasuna izaten duela sagarraren ekoizpenak, eta horrek, eragina izan du, dudarik gabe, iazko uzta. «Iazko uzta historikoaren ostean, aurtengoa ekoizpen gutxiagoko uzta izan da», azaldu zuten Sagardotxeako ekitaldian, txotx denboraldiaren hasierako aurkezpenean.

Dena den, nabarmendu zuten «sagarraren kalitatea oso altua» izan dela, baita haren heldutasuna ere: «oso aurreratua etorri da».

11,78 milioi litro sagardo

2018ko uztarekin, Euskal Herri osoan, 11,78 milioi litro sagardo ekoiztu dira. Horietatik, 1.500.000 litro sagardo

1.500.000 litro ekoiztu dituzte bertako sagarrarekin.

bertako sagarrarekin egindakoa eta Euskal Sagardoa Jatorri Izendapeneko.

Txinparta biziko sagardoa

Begien bistara, «txinparta biziko sagardoa» dela azaldu zuten, baita «lasto» kolorekoa ere. Horrez gain, usaimenean, «sakontasun aromatiko handia dauka, fruta-usaimenean». Eta ahoan, aldiz, «gorpuzdunak» dira. Hortaz, sagardo «konpletoa» dugu aurtengoa. ||

Autobus zerbitzua



Sagardotegietara aurtan ere, garraio publikoan

Gaur jarriko du martxan zerbitzua Hernanik; Astigarragan, aldiz, otsailaren 1etik aurrera eskainiko dute txotx busa.

SAGARDOTEGIETARA autobusez joateko deia egiten dute urtero erakundeek, eta horretarako, autobus zerbitzu bereziak jarriko dituzte Hernani eta Astigarragan Udalek, txotx denboraldian zehar.

Hernaniko zerbitzua, gaur hasita

Gaur jarriko da martxan Hernaniko zerbitzua, hain zuzen, Osiñagako sagardotegiak biltzen dituen: Itxas-Buru, Otsua-Enea, Olaizola, Altzueta, Iparragirre, Elorri eta Goiko-Lastola. Ostiral iluntzean eta larunbat eguerdi eta iluntzean izango dira autobusak, eta Zinkoeneako geltokia izango dute elkargune (Astigarragarantz).

Ordutegiak aldatu egiten dira garraiaren arabera; gehigarri honen atzeal-

dean daude, ikusgai.

Horrez gain, Larre-Gain sagardotegiak ere, badauka autobus-zerbitzu propioa.

Otsailaren 1etik aurrera, Astigarragatik

Udalak, Behemendi Elkartek eta eta sagardogileek sustatuta, aurtan ere Txotx busa eskainiko dute Astigarragan, otsailaren 1etik aurrera. Astelehenean ostiralera gauz besterik ez da egongo; eta larunbatetan, aldiz, eguerdian eta gauean izango da autobus zerbitzua, joan-etorria egiteko. Zerbitzu honen ordutegiak ere, atzealdean aurkitu daitezke.

Astigarragaren kasuan, zerbitzua doakoa da. ||

AURTEN? IAZ BAINO HOBEA

Bota bertsoa!

V. BERTSO PAPEREN LEHIAKETA TXIKIA

Gaia
AURTEN? IAZ BAINO HOBEA

Parte hartzeko

1. paperean bertsoa idatzi (nahi den doinu eta neurrian)
2. izen-abizenak eta telefonoa jarri
3. kutxatxoan sartu papera edo bidali Doberako e-postara: dobera@dobera.eus
4. Epea: martxoak 25

Sariak
Liburuak/ipuak, otorduak, hainbat kaxa sagardo ...

Bertsoen emanaldia eta sari banaketa
Apirilaren 5ean, 19:00etan, Sandiusterrin.

Antolatzaileak
Iraulio Pantalone Bertso Kabiya
Dobera Euskara Elkartea

Sagardotegiak

Akarregi

Akarregi auzoa-baserría, Hernani
943 330 713 / 660 144 560

Alberro

Santa Barbara auzoa 61, Hernani
943 55 00 19

Altzueta

Osinaga 7, Hernani
943 551 502
<http://altzuetasagardotegia.com/>

Artola

Ioitza Bidea 19, Astigarraga
943 55 72 96 / 645 729 571
<http://www.artolasagardotegia.com/>

Elorrabi

Osiñaga auzoa, Elorrabi baserría, Hernani
943 33 69 90 / 630 42 96 74
<http://www.elorrabi.com/>

Gartziategi

Martutene pasealekua 139, Donostia
943 46 96 74
<http://www.gartziategi.com/>

Goiko Lastola

Ereñotzu auzoa, Hernani
943 55 32 72 / 620 78 35 29

Gurutzeta

Oialume bidea 63, Astigarraga
943 55 22 42
<http://www.gurutzeta.com/>

Iparragirre

Osiñaga 10, Hernani
943 550 328
<http://www.iparragirre.com/>

Ipintza

Santio zeharra 12, Astigarraga
688 81 17 24
<http://www.ipintza.com/>

Itxas-Buru

Osiñaga auzoa, Hernani
943 55 68 79
<http://www.itxasburusagardotegia.com/>

Larre-Gain

Larre-gain baserría, Ereñotzu, Hernani
943 55 58 46 / 616 28 78 67
<http://www.larre-gain.com/>

Lizeaga

Gartziategi baserría, Martutene pasealekua 139, Donostia
943 46 82 90
<http://www.lizeaga.eus/>

Oialume zar

Mikel Arozamena 16, Astigarraga
943 552 938
<http://www.oialumezar.com/>

Olaizola

Osiñaga auzoa 38, Hernani
943 336 731 / 690 698 484

Otsua-enea

Osiñaga auzoa, Hernani
943 556 894
<http://www.otsua-enea.com/>

Oyarbide

Oiarbide Baserría, Astigarraga
943 553 199

Petritegi

Petritegi bidea 8, Astigarraga
943 457 188 / 943 472 208
www.petritegi.eus

Rufino

Akarregi baserría, Hernani
943 552 739

Zapiain

Kale nagusia 96, Astigarraga
943 330 033
<http://zapiain.eus/>

Zelaia

Martindegi 29, Hernani
943 555 851
<http://www.zelaia.es/>

Autobusak

HERNANI

Ibilbideak osinagako sagardotegiak biltzen ditu: Itxas-Buru, Otsua-Enea, Olaizola, Altzueta, Iparragirre, Elorrabi eta Goiko-Lastola.

	IBILBIDEA	OSTIRALA		LARUNBATA	
		JOAN	ETORRI	JOAN	ETORRI
URTARRILAK 19 OTSAILAK 9 (biak barne)+ ASTE SANTUKO ASTEBURUA (Apirilak 19-20)	ZINKOENEA > OSINAGA	-----	-----	14:00	18:00
	ATSEGINDEGI > LARREGAIN	21:00	00:00	21:00	00:00
OTSAILAK 15 MARTXOAK 30 (biak barne)	ZINKOENEA > OSINAGA	-----	-----	13:30	18:00
	ATSEGINDEGI > LARREGAIN	20:30	23:30	20:30	23:30
APIRILAK 5 APIRILAK 27 (Aste santuko asteburua izan ezik)	ZINKOENEA > OSINAGA	-----	-----	14:00	18:30
	ATSEGINDEGI > LARREGAIN	21:00	00:00	20:30	23:30
				21:00	00:00
				13:30	18:00
				20:30	00:30

*Lurraldebus txartelarekin ordaindu daiteke.

ASTIGARRAGA

Otsailaren 1etik apirilaren 27ra

Zerbitzua Erdigunea-Sagardotegiak-Erdigunea

Geltokia Donostia Ibilbideko autobus geltokia (Hernaniko norabidea)

	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA
JOAN	-----	-----	13:30 etatik
			15:00 etara
	20:30 etatik	20:30 etatik	20:30 etatik
	22:00 etara	22:30 etara	22:30 etara
ETORRI	-----	-----	16:30 etatik
			18:00 etara
	22:00 etatik	22:30 etatik	22:30 etatik
	00:00 etara	00:30 etara	00:30 etara